

PRENTSA-OHARRA

Zabalik da Minaberri itzulpen-bekaren II. deialdia



- Itzultzaile hasiberriei begira sortu zen iaz itzulpen-beka.
- Bekaren hartzailea mentoretza baten bidez trebatuko da itzulpengintzan.
- Txalaparta argitaletxeak argitaratuko ditu itzulpenak.

EIZIEk, Iruñeko Udalarekin lankidetzan eta Txalaparta argitaletxearen laguntzaz, MINABERRI itzulpen-bekaren II. deialdia antolatu du, mentoretza baten bitartez nazioarteko gazte-literaturako lan esanguratsu bat euskaratzeko. Mentoretza CEDRO erakundearen laguntzaz egingo da.

Beka honen bidez, halaber, elkartearen xede diren arlo bat baino gehiago landuko dira: itzulpengintza sustatzea, prestakuntza profesionala eskaintzea eta itzulpenen kalitatea zaintzea, irakurzaletasuna ere sustatzeaz batera.

Itzultzaile hasiberriei begira, mentoretza baten bitartez

Itzultzaile gazte hasiberriak trebatzeko xedez, 30 urtetik beherako itzultzaileek izango dute itzulpen-bekara aurkezteko aukera, eta mentoretza bat ere aurreikusi da, ibilbide luzeagoko itzultzaile batek laguntza eman diezaion itzultzaile gazteari itzulpen-prozesuan, zenbait saioren bitartez.

Itzulgaiak, nazioartean sarituak

Zer lan itzuliko diren erabakitzeko, nazioartean osperik handiena duten haur eta gazte literaturako sariketak hartzen dituzte kontuan antolatzaileek: Hans Christian Andersen saria eta Astrid Lindgren saria.

Bi sariketa horietan sarituak izan diren egileen lanak aztertzen ditu urtez urte horretarako osaturiko hautaketa-batzorde batek, eta egokien irizten dion gazte-literaturako lan bat aukeratzen du, bekaren deialdirako.

Deialdia

Zabalik da bigarren deialdia, eta Marie-Aude Murail idazlearen *Sauveur & fils* obra izango da aurtengo itzulgaia. Lanak aurkezteko epea apirilaren 28an amaituko da.

Beka eskuratzen duen itzultzaileak 3.000 euro jasoko ditu Iruñeko Udaletik, eta Xabier Olarra itzultzailearekin jardungo du aurtengo itzulpen-prozesuan.

Ikus oinarriak beheago.

II. Minaberri itzulpen-beka

Gazte-literatura euskaratzeko

Oinarriak

EIZIEk, Iruñeko Udalarekin lankidetzan eta Txalaparta argitaletxearen laguntzaz, MINABERRI itzulpen-beka antolatu du mentoretza baten bitartez nazioarteko gazte-literaturako lan esanguratsu bat euskaratzeko. Mentoretza CEDROren laguntzaz egingo da.

Helburua

2025eko Minaberri Bekaren helburua honako obra hau euskaratzea da:

Marie-Aude Murail idazlearen *Sauveur & fils*.

Norentzat

Literatur itzulpengintzan hasi nahi eta lagina aurkezteko epea amaitu aurretik gehienez ere 30 urte dituen orok parte har dezake deialdian. Nolanahi ere, ezin izango dira aurkeztu euskarazko literatura-itzulpen beka, sari edo lehiaketaren batean irabazle izan direnak.

Itzuli beharreko testua

Deialdian parte hartu nahi dutenek aurtengo bekaren helburu den laneko lagin bat itzuli beharko dute.

Antolatzaileak parte-hartzaileen esku jarri du bekarako itzuli beharreko lagina, honako helbide honetan: https://eizie.eus/eu/argitalpenak/ii_minaberri_beka

Lanak aurkezteko epea eta lekua

Lanak aurkezteko epea 2025eko apirilaren 28ko eguerdian amaituko da (12:00etan).

Bi modutara aurkez daitezke eskaerak:

a) Paperean:

1. Lehiatzaileen eskura jarritako testuaren itzulpena, ezizen batez sinaturik.
2. Gutun-azal itxi baten barruan, itzultzailearen datuak adieraziko dira, eta ezizen bera errepikatuko gutun-azalean. Hauek dira adierazi beharreko datuak: itzultzailearen izen-deiturak, jaioteguna eta jaioterria, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, izenpea. Nortasun agiriaren fotokopia eta CV bat ere sartu behar dira gutun-azal horretan.

Biak gutunazal berean sarturik, honako helbide honetara bidali behar dira: EIZIE. Zectoria kalea 25, behe. 20013 Donostia.

b) Posta elektronikoz:

1. Honako helbide honetara bidali behar da mezua, gaia adierazirik: idazkaritza@eizie.eus. Gaia: II. Minaberri itzulpen-beka.
2. Bi dokumentu bidali behar dira mezuari erantsita: batean, testuaren itzulpena bera, ezizen batez sinaturik; bestean, ezizen horren atzean dagoen itzultzailearen datuak (gorago adierazitakoak). Nortasun agiriaren fotokopia eta CV bat ere erantsi behar zaizkio mezuari.

Epaimahaia eta balorazio-irizpideak

Epaimahai batek aztertuko ditu jasotako itzulpenak, eta bekaren irabazlea izendatuko du. Hiru lagunek osatuko dute epaimahaia: Fernando Rey Escalerak (EIZIEk izendaturik), Amaia Orbe Barriok (Txalaparta argitaletxeak izendaturik) eta Xabier Olarra Lizasok (bekarako izendaturiko mentoreak).

Aurkeztutako itzulpenetan testuaren kalitatea, hizkuntza-aberastasuna eta sorburu-testuarekiko baliokidetzat baloratuko dira.

Mentoretza

Literatura-itzulpenaren arloan eskarmentua duen itzultzaile bat izendatu du EIZIEk, eta haren laguntza/orientazioa jasoko du itzultzaile hasiberriak, itzulpen-prozesuak irauten duen bitartean. Aurten, Xabier Olarra Lizaso izango da mentorea.

Zazpi lan-saio egingo dituzte, bina ordukoak, posta bidezko harreman jarraitua baztertu gabe. Lehen bileran, bien artean erabakiko dute saioak nola antolatuko dituzten: aurrez aurre, posta elektronikoz edo online.

Saria

Irabazleak 3.000 euro gordin jasoko ditu Iruñeko Udaletik lana osorik itzultzeko, eta kopuru horrek barne hartzen du mentoretza-saioetan parte hartzea. Bi zatitan jasoko du bekaren ordainsaria: erdia (1.500 euro) jakinarazpena egiten denetik bi hilabetera beranduenez, eta beste erdia (1.500 euro) mentoreak itzulpen-prozesuari buruzko aldeko txostena aurkeztu ondoren EIZIEri.

Itzulpena aurkezteko epea

Irabazleak 2026ko ekainaren 23a baino lehen entregatu beharko du lan amaitua.

Ez betetzeak

Epeak betetzen ez badira, edo itzulpenaren kalitatea nabarmen txarra bada (epaimahaiaren iritziz betiere), sariaren bigarren zatia jaso ez, eta lehena itzuli egin beharko du irabazleak.

Argitalpena

Txalaparta argitaletxeak argitaratuko du itzulpena –eskubideak aurrez eskuratuta–, eta 2026ko abendua izango da hori egiteko epemuga. Ale guztietan nabarmen aipatuko da Minaberri beka, baita itzultzailearen izena ere. Itzultzaileak eta argitaletxeak sinaturiko itzulpen-kontratu baten bidez bermatuko dira itzulpenaren jabetza eta ustiapenerako baldintzak.

Liburuaren aurkezpena

Bekaren hartzaileak liburuaren aurkezpenetan parte hartuko du, eta prest agertuko da oro har liburuaren sustapenean edo promozioan lagungarri izango diren jardueretan parte hartzeko.

Datu pertsonalen tratamendua

Deialdi honen garapenean bilduko diren datu pertsonalak 2016/679 Araudian (EB) jasotakoaren arabera tratatuko dira. Araudi horrek pertsona fisikoak babesten ditu datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokionez.

Beka honetan parte hartzeak oinarri hauek ontzat ematea dakar. Zalantzarik sortzen bada, antolatzaileari dagokio erabakia.

Harremanetarako: idazkaritza@eizie.eus